

(AURREKO ORRIALDETIK DATOR)

rrira joateari buruzko kezka hor dirau euskal gizartean. «Michelin, Dassault, Volkswagen... deslokalizazioak edo berauen mehatxuak gero eta ohikoagoak ditugu», gogoratu du Joseba Barandiaran ekonomistak. Horiei aurre egiteko indarrean jarri diren ekimenak —Jaurilaritzaren Berrikuntza Plana, Arrasateko Garaia Ploa...—, eta lehendik dauden I+G jarduerak guztiak «oinarri-oinarrizkoak izango dira Euskal Herrian bizi mailari eutsi ahal izateko.

Baina bada lekutzei buruz irizti ona duenik ere. «Zenbait taldeetan duten eragin gaiztoa gutxietsi gabe», Navarrok uste du «uxatu beharreko mamu» asko daudela deslokalizazioei buruz. «EAETik kanpora doazen zuzeneko inbertsio gehienak (% 80 baino gehiago) ez bide dabilta lan-kostu apalagoren bila, gure enpresen merkatuak zabaltzeko ahaleginean baino. Areago, lekutzeak, oro har, onuragarriak izan zaizkio EAERI, eta gerta zitezkeen testuingururik hobereanean gertatu dira: BPG eta produktibitatea galanki hazten, enplegua goraka eta langabezi tasa minimoekin, enpresen errentagarritasuna goia jotzen... Aukera paregabea hemen iritsitako bizi-maila altuagatik bertan mantendu ezin daitezkeen kualifikazio gutxiako lanpostuak lan-kostu apalagoko herrialdeetara eramateko eta hemen lanpostu kualifikatua go eta lan-sari handiagokoekin gelditzeko».

Lanpostu kualifikatu horiek betetzeko nahikoa langile ez egoteak kezkatzen du Goio Etxebarria EHUko Ekonomia irakaslea. «Agian hemen kualifikazio lanpostu nahiko ez daudelako, edo lanposturik onenak Madrilan edo beste nonbait daudelako, baina azken urteotan nahiko nabaria da

sektore baten emigrazioa». Kalteak besterik ez dizkio ikusten Etxebarriak. «Urteotan irakaskuntzan eginiko ahalegina eta inbertsioa alperrik galtzen dira. Gainera, eragin ekonomiko handia du langile kualifikatuak galtzeak. Ez dut kezka hori entzuten diskurtso ofizialean. Ez al gara gai izan aukerak sortzeko jende horrentzat?».

Administrazioetan beste jarraira kritikagarririk ere ikusten du Jubetok: zerbitzu publikoak azpikontratatzeko joera. «Adibide lagarrienak Osakidetzan eta Osasunbidean gertatzen ari dira: ez bakarrik direlako, baizik eta gure osasunarekin negoziatzea egin nahi dutenen aldeko apustua egiten dutelako hemengo administrazioek. Azken hilabeteotan Osakidetzako langileak aurrera eramaten ari diren aldarrikapenek argi erakusten dute zein den administrazioaren jarrera atal garrantzitsu horretan».

### Hipoteken krisia

AEBetako etxebizitza merkatuaren burbuilaren zultze zalapartatsua Euskal Herrian bi eragin mota izan ditzakeela iragarri du Barandiaranek: batetik, AEBetako ekonomia moteltzea ekar dezakeenez, euroa gehiago indartu eta Euroguneko lehiakortasuna kalte dezake; eta, bestetik, interes tasak igotzea ekartzen badu, familia zorpetuek arazo larriak izan ditzakete.

Etxebarriaren arabera, hipoteken krisiak agerian utzi du sistemak badituela ahuldade franko. «Finantzak oso merkatu berezia dira, espekulazioa legea edo oinarria delako hein handi batean. Horrek ondorioak biderkatzen ditu

«Zerga erreformak atzerakorrak dira, gehien dutenek gutxiago ordainduko dutelako»

MIKEL ZURBANOK  
EHU-KO EKONOMIA APLIKATUKO ZUZENDARIA

«I+G jarduerak guztiak oinarri-oinarrizkoak izango dira bizi mailari eutsi ahal izateko»

JOSEBA BARANDIARAN  
EKONOMISTA

«Hipoteken krisiaren ikasgaia da, merkatuak benetan hobeto arautu behar direla»

GOIO ETXEBARRIA  
EHU-KO EKONOMIA IRAKASLEA

«AEBetan hegemonia ahuldu da, eta ikusteko dago dolarrak diru nagusia izateari utziko ote dion»

JOSEBA GARMENDIA  
EHU-KO ENPRESA IKASKETETAKO IRAKASLEA

merkatu errealean. Ikasgaia da merkatuak benetan hobeto arautu behar direla». Krisiaren biktimetako bat arriskuak ebaluatzeko dauden agentziak izan dira. «Oso nabarmen geratu dira. Bankuen likideziaz eta egoeraz ez zuten informazio egokia eman, eta arriskua zutenen ebaluazioa ez zuten jaitzaz. Zalanza da zer-nolako kontrolatzaileak dituen kapitalismoak, etsaia bere muinean bertan du, Estatu Batuetan. Sistema ez da hain irmoa».

Zurbanok irizti dio *sub prime* hipoteken krisiak «finantza sistema desegonkortsu» egin duela. Banku zentralak finantza merkatuan likidezia txertatu izanak «krisiaren talkarik txarrena saihestu» duela iruditzen zaio, baina ez duela lortu ekonomiako eragin murrizkorrik gaintzea.

### Boterearen berrosatzea

Hazkundera bera kezka iturri bikoitza da Mendebaldean. Haren moteltzea etxean, eta Asiako hazkunde handia, etxetik kanpo. Gai horretan ere «funtzik gabeko beldurra» sortzen duela uste du Navarrok. «Txina asko hazteak ez digu kalte handirik eragin, alderantziz baizik. Oraindik ere handik inportatzen duguna oso gutxi da, eta hazkundera negoziotarako aukerak sortu ditu gure enpresentzat. Kalteak eragitekotan, «naturari» egindakoak nabarmendu ditu Deustuko unibertsitateko irakas-

leak. «Kapitalismoan beti egon da kontraesana kapitalak eragindako neurri gabeko hazkunde ekonomikoaren eta izadiaren baliabide mugatu eta suntsikorren artean. Baina kontraesan hori gaur egun biziagotzen ari da, merkatu eta kapitalismoaren sailera milioika bizilagun dituzten herrialdeak burubeltarri sartu direlako. Gure sistemaren krisia ez da etorriko hainbeste nahiko plusbaliorik edo eskaririk ez egoteagatik, baizik eta sistemaren neurritz gaineko hazkundeak naturaren mugekin topo egiteagatik. Horren seinaleak azaleratzen hasi dira dagoeneko: aldaketa klimatikoari ez ezik, petrolioaren eta hainbat lehengairen prezioen gorakada bizkorriari so egitea besterik ez dugu».

Joseba Garmendiaren arabera, 2007ak agerian utzi du munduan botere ekonomikoak «berrosatzen» ari dela. «Estatu Batuen hegemonia ekonomiko ahultzen ari da, dituen egiturazko desorekek —defizit komertzialak eta fiskalak bati bat— dolarraren balioan eragina izaten ari dira, eta ikusteko dago dolarrak erreserba diru garrantzitsuena izateari utziko dion». Ildo horretan, zenbait mugimendu ikusi ditu Garmendiak: «Petrolioaren eta gasaren merkatuan salerosketak euroan egiteko proposamenak, edota Txinako Banku Zentralak dolarretan dituen alimaleko erreserbak gutxitzen joateko erabakiak».



KHALID MOHAMMED / AP

# PETROLIOAK PIZTUTAKO SUA

Erregaien eta beste lehengaien sekulako garestitzeak familiak estutu ditu, eta energia eredia kinkan jarri du.

// I. A.

Baliteke amaitzear dagoen urte honetan titulu gehien sortu duen gaia petrolioaren garestitzea izatea. Eta hurrengo urteotan sortuko dituenak ere bai; izan ere, gartzeko bidean diren herrialdeen eskari hazkorrek eta erreserba berriak ustiatzeko arazoak iradokitzen dute igoera ez dela egoeraren araberakoa, luzarora begirakoa

baizik. Petrolio merkearen garaia amaitu da.

Urtea 60 dolarren bueltan hasi zuen Brent upelak, eta 50 dolarrean ere jaitzi zen urtaril bukaeran, baina geroztik gora besterik ez du egin, eta azaroan 100 dolarreko muga haustear izan zen. 2002ko urtarilean 20 dolarrean amildu zenetik, urtero igo izanak erakutsi du igoera ez dela egoeraren arabera, espekulazioa gorabehera, eskaintzaren eta eskariaren arteko harremanetan oinarrituta dago.

Petrolioaren garestitu baita, aldaketa handiak gertatzen ari dira politikan eta ekonomian. Batetik, indar handia eman die herrialde ekoizleei beren nazioarteko harremanetan —Venezuelak eta Iranek zeresan handiagoa lortu dute—, eta, bestetik, petrodolarren eragina handitu du Mendebaldeko en-

presetara eta bankuetara.

Herritar xumeen eguneroko bizitzan ere nabari da. Ez soilik auto, kamioi edo itsasontzien biltegiak betetzeko euro gehiago xahutu behar delako, baizik eta esnea, ogia, haragia, arrautzak eta oinarritzko elikagai ia guztiak dezente garestitu direlako azken hilabeteotan. Igoera horiek, neurri batean, petrolioari zor zaizkio —ekoizpen gastu handiagoak—, baina baita Mikel Zurbanok aipatu dituen beste bi faktoreri ere: «Hori gertatzen ari da gartzeko bidean diren herrialdeen elikagaien eskaria handitzen ari delako eta soja, zituak eta abarrak erabilpen energetikora ere bideratzen ari direlako; horrek, epe luzean, eskasiaren irudia indartuko du». Ondorioak epe laburrean «ikusgarriak» direla uste du Zurbanok. «Gartzeko bidean

dauden herrialde ekoizle batzuk errenta transferentzia garrantzitsuak lortzen ari dira esportazioengatik, eta hori batzuk zorraren aztarnak uxatzeko erabiltzen ari dira. Beste ondorio garrantzitsu bat da epe laburrean zero inflazioa piztuko dela Mendebaldeko ekonomietan». Bada epe luzeko beste ondorio bat ere: «Eredu energetikoa errotuta».

### Nuklearraren itzulera

Petrolioaren garestitu ahala, beste energia iturri batzuk erakargarriago bilakatzen ari dira. Horien artean, oihartzun handia ematen ari zaie iturri berriztagarriei, baina bada, isilago bada ere, berriro indarra hartzen ari den beste energia bat: nuklearra. Ez bakarrik petrolioaren ordezkotzat jotzen delako, baizik eta CO2 isurtzen ez duenez,

energia garbi gisa agertzen ari direlako.

Gaia gertutik jarraitu du Henrike Galartzak, eta oso kezkatuta dago. «Lehenago egunean ikusi nuen Greenpeaceko sortzaileetako bat nuklearren alde egiten. Orain, argudio ekologistekin ari dira alde egiten. Alde soziala —oso arriskuetsua zela eta segurtasun eremuak handitzen zituela— ez dute oztupo. Barneratu dugu begiratzen gaituztela eta hor konpon Mari Anton. Gertatzen zaien oztupo bakarra ekologismoa da. Jendea larritu nahi dute berotegi efektuarekin. Gauzak horrela, onena kontsumoa murriztea izango litzateke, baina hori ez dute inondik ere aipatzen».

Baina Galartzak ez du uste Hego Euskal Herrian zentral gehiago jarriko direnik. «Argindar konpainiek badakite gehienak aurka daudela eta ez diete aurre egin nahi. Gainera, orain berriztagarriekin irudi berdea eman nahi dute, eta horrekin batera nuklear bat jartzek ez lieke mesederik egingo».